

Eskumen publikoaren adierazpena

Eskumen publikoaren adierazpen hau sortu da COMMUNIA-Europar eskumen publiko digitalaren sarearen eginkizunen barnean.

Atarikoak

"Le livre, comme livre, appartient à l'auteur, mais comme pensée, il appartient — le mot n'est pas trop vaste— au genre humain. Toutes les intelligences y ont droit. Si l'un des deux droits, le droit de l'écrivain et le droit de l'esprit humain, devait être sacrifié, ce serait, certes, le droit de l'écrivain, car l'intérêt public est notre préoccupation unique, et tous, je le déclare, doivent passer avant nous." (Victor Hugo, *Discours d'ouverture du Congrès littéraire international de 1878*, 1878)¹

"Our markets, our democracy, our science, our traditions of free speech, and our art all depend more heavily on a Public Domain of freely available material than they do on the informational material that is covered by property rights. The Public Domain is not some gummy residue left behind when all the good stuff has been covered by property law. The Public Domain is the place we quarry the building blocks of our culture. It is, in fact, the majority of our culture." (James Boyle, *The Public Domain*, p.40f, 2008)²

Eskumen publikoa, guk ulertzen dugun eran, informazio aberastasun bat da, eskuratu edo berrerabili daitekeena egile eskubideen babesak ezarri ohi dituen hesien gainetik, edo ez duelako inolako egile eskubideren babesik, edo eskubide horien jabeak hesi-muga horiek ezabatu nahi izan dituelako. Geure ulermenaren oinarria da, geure jakintza eta kultura partekatuen adierazpena. Jakintza berria eta kultur obra berriak sortzeko erabili behar den lehengaia da. Eskumen publikoa babes tresna bat da, ziurtatzen duena lehengai hori eskuragarri izango dela berrerabiltze kostu soilaz —hutsetik hurbil—, eta gizartearen partaide guztiak eraiki ahal izango dutela bertatik abiatuta. Eskumen publiko osasungarri eta oparo bat izatea funtsezkoa da gure gizartearen garabide sozial eta ekonomikoa bermatzeko. Eskumen publikoak zeregin gailena du hezkuntzan, zientzian, kultur ondarean eta sektore publikoaren informazioaren esparruan. Eskumen publiko osasungarri eta oparo bat izatea baldintza ezinbestekoa da Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 27.1 artikularen printzipioa («Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko») munduan edonon eta edonork gauzatu dezakeela bermatzeko.

¹ «Liburua, liburu den heinean, egilearena da, baina pentsamendua den neurrian, gizateriari —ez da hitz handiegia— dagokio. Adimen guztiak dute harekiko eskubiderik. Bi eskubideetarik, idazlearen eskubidea eta gizakiaren eskubidea, bat alboratu gelditu behar baldin bada, idazlearena izan behar da zalantza gabe, onura publikoa baita gure ardura bakarra, eta denak, aitortu dit, daude gure aurretik.» (Victor Hugo, *Discours d'ouverture du Congrès littéraire international de 1878*, 1878).

² «Gure merkatuak, gure demokrazia, gure zientzia, gure adierazpen askatasunaren tradizioa, eta gure artea orobat askoz ere sakonkiago daude loturik eskumen publikoan era askean eskura daitezkeen materialei, jabetza eskubideen mende dagoen informazioari baino. Eskumen publikoa ez da hondakin bat, gai egoki guztiak jabetza legepean jarri ondoren gelditzen den kondarra. Eskumen publikoa da gure kultura eraikitzeko harlanduak aterako ditugun harrobia. Izatez, gure kulturaren gehiagoa da. (James Boyle, *The Public Domain*, 40f or., 2008)

Jakintza digitalaren gizarteak eskumen publikoaren gaia egile eskubideei buruzko eztabaidaren lehen mailan ipini du. Eskumen publikoa babestu eta zabaldu nahi badugu, ezinbesteko baliabide honen interpretazio irmo eta eguneratu bat behar dugu. Eskumen publikoaren adierazpen honek eskumen publikoa zedarritzearekin batera, behar diren irizpideak eta orientabideak zehazten ditu, XXI. mendean eskumen publiko osasungarri bat izan dezagun. Eskumen publikoa egile eskubideen legeen arabera aztertzen da hemen, bazter utzirik jabetza intelektualaren beste eskubide batzuk (adibidez, patenteak eta markak), eta egile eskubideak erarik zabalenean ulerturik, barne direla egilearen eskubide ekonomikoak eta moralak, baita horiei lotutako eskubideak ere (datu baseen gaineko eskubideak). Hemendik aurrera, beraz, dokumentu honetan «egile eskubide» esaten zaio eskubide multzo zabal horri. Gainera, «lana» edo «obra» esaten denean egile eskubidearen babespean diren obra guztiak adierazten dira, barne direlarik datu baseak, interpretazioak eta grabazioak. Era berean, «egile» hitzak berdin hartzen ditu argazkilariak, ekoizleak, igorleak, margolariak edo antzezleak.

Eskumen publikoa XXI. mendean

Adierazpen honek eskumen publikotzat hartzen ditu eskubide babesaz kanpo eta murrizpenik gabe erabil daitezkeen kultur gaiak. Eskumen publikoan berez dauden lanez gain, beste lan asko daude egileek nahitara partekatzen dituztenak eskuzabaltasun handi batez, eta bide pribatu batez eratutako auzo-ondare bat sortu duena, askotan eskumen publikoaren gisara erabil daitekeena. Horrez gain, babestutako lan asko erabil ditzakete norbanakoek, egile eskubideen gaineko salbuespenak edo mugakizunak baliatuta, gizalegezko erabilera edo trataeraren bitartez. Gure kultura eta ondarea eskuratzeko iturri horiek denak garrantzizkoak dira, eta denei eutsi behar diegu era aktiboan, jakintza eta kultura partekatuaren uzta gizarte osoak jaso dezan.

Eskumen publikoa

Egiturazko eskumen publikoa da nozio honen muina; beraren barne dira gure jakintza, kultura eta baliabide partekatuak, eskubide mugakizunik gabe erabil daitezkeenak, indarrean diren legeen arabera. Zehazkiago, egiturazko eskumen publikoa eratzten da bi material mota ezberdinez:

1. **Egile eskubideen babesa iraungia duten egileen obrak.** Egilea eskubideak aldi baterako bermatzen zaizkie egileei. Babes aldi hori amaitzen denean, lege mugakizun guztiak bertan behera gelditzen dira, nahiz herrialde batzuetan egileen eskubide moralak betirakoak diren.
2. **Egile eskubideetatik libre den agizko informazio nagusia.** Eskubidez babesturik ez diren obrak dira, edo egiletzaren froga gainditzen ez dutelako, edo babesetik at direlako (besteak beste, datuak, egitateak, ideiak, prozedurak, prozesuak, sistemak, eragiketa metodoak, kontzeptuak, printzipioak edo aurkikundeak, albo batera utzirik zein eratan diren aurkeztuak, azalduak, erakutsiak edo lan jakin batean txertatuak; baita ere, legeak eta auzitegien nahiz administrazioen erabakiak). Agizko informazio nagusi hori garrantzitsuegia da gure gizartearen jardunerako, ezein lege mugakizunik ipintzeko, ezta aldi baterako baldin bada ere.

Egiturazko eskumen publikoa handituz joan da, legeek babesten dituzten egile eskubideen aurrean, eta funtsezkoa da gure gizartearen kultur oroimena eta oinarrizko jakintza ziurtatzeko. XX. mendearen bigarren erdian, hemen azaldu ditugun bi osagaiak higatu egin ziren, alde batetik, egile eskubideen izaera zabaldu zelako; eta bestetik, lege babespean ipini zirelako egile eskubideen gisako beste araubide batzuk.

Borondatez partekatutako jakintza eta erabiltzaileen eskubideak

Egiturazko eskumen publikoaren muin horrekin batera, badira beste funtsezko iturburuak ere, norbanakoei aukera ematen dietenak egile eskubideen babespean diren obrekien elkarreragiteko. Iturburu horiek egungo gure kulturaren eta jakintzaren arnaguneak dira, ziurtatzen baitute egile eskubideen babesak ez dituela eragozten gizartearen eskakizunak, ezta egileen berariazko hautuak ere. Nahiz eta iturburu horiek babespeko obra ugari eskuragarri jartzen dituzten, batzuetan baldintza mugatzaileak ipintzen dituzte erabilera jakin batzuetarako edo erabiltzaile batzuentzat soilik.

1. **Eskubideen jabeek borondatez partekatzen dituzten obrak.** Sortzaileek beren obraren gaineko mugakizun guztiak ken ditzakete, edo baimen libre baten mende ipinita, edo legeetan jasotako beste bideren bat erabilita, edo obra eskumen publikora lagata. Baimen libreei buruzko definizioak ikusteko, jo hona:

- software librea <http://www.gnu.org/philosophy/free-sw.html>
- kultur lan libreak <http://freedomdefined.org/Definition>;
- jakintza askea <http://opendefinition.org/1.0/Euskara>.

2. **Erabiltzaileen eskubideak, egile eskubideen salbuespen edo mugakizunez, eta bidezko erabilera eta tratuaz sortuak** Eskubide hauek eskumen publikoaren osagai berezkoak dira, ziurtatzen baitute gure kultura eta jakintza partekatuaren erabilera, funtsezko erakunde sozialen zeregina erraztuz eta behar bereziak dituzten norbanakoen partaidetza soziala bideratuz.

Oro har, eskumen publikoa, obrak borondatez partekatzea eta egile eskubideei salbuespenak edo mugakizunak ipintzea, bidezko erabilera eta bidezko tratua oso lagungarriak dira ziurtatzeko guztiok dugula kultura eta jakintza partekatua eskuratzeko aukera, horrela berrikuntza eta kultur partaidetza bideratuz, gizarte osoaren onerako. Beraz, oso garrantzizkoa da eskumen publikoa, bere bi alderdietan, etengabe biziberritzea, bere egitekoa ongi betetzen jarrai dezan, aldakuntza teknologiko eta sozial bizkorren garai hauetan.

Oinarri orokorrak

Aldakuntza teknologiko eta sozial bizkorren garaiotan, eskumen publikoak funtsezko betekizuna du kultur partaidetza eta berrikuntza digitala garatzeko; horregatik, etengabe elikatu beharra dago. Eskumen publikoa elikatzeko, ordea, oinarri orokor batzuk hartu behar dira gogoan. Jarraian datozen oinarriok funtsezkoak dira eskumen publiko zentzuzko bat babesteko, eta,aldi berean, ziurtatzeko eskumen publikoak bere egitekoa betetzen jarraituko duela sare-

informazioaren gizarteko ingurumen teknologikoan. Egiturazko eskumen publikoari dagokionez, oinarriak hauek dira:

1. **Eskumen publikoa da araua, egile eskubideen babesa da salbuespena.** Egile eskubideen babesa adierazpide originaletarako soilik ziurtatua denez, munduan zehar noiznahi sortutako datu, informazio eta ideia gehien-gehienak eskumen publikoari dagozkio. Babesgarri ez den informazioaz gain, eskumen publikoa urterik urte zabaltzen da, babes aldia amaitzen zaien obren bitartez. Babestua izateko baldintzapenak zorroztea, alde batetik, eta babes aldia mugatzea, bestetik, onuragarriak dira eskumen publiko osasungarri bat izan dezagun, eta guztiok kultura eta jakintza partekatua eskuratzerik izan dezagun.
2. **Egile eskubideen babesak iraun behar du soilik nahitaezkoa den denbora, zentzuzko konpromiso batean bateragarri izan daitezen, alde batetik, egilearen babesa eta bere lan intelektualaren ordaina , eta, bestetik, kultura eta jakintza banatzearen onura publikoa.** Ez egilearen ikuspegitik, ez onura publikoaren ikuspegitik, ez dago argudio sendorik (ez historiko, ekonomiko, sozial edo bestelakorik) egile eskubideen babes aldia ikaragarri luzea izateko. Egileak bere lan intelektualaren emaitzak jasotzeko gai izan behar duen arren, jendeari ezin zaio luzaroegi ukatu obrak era askean erabiltzearen onura.
3. **Eskumen publikoan dagoena, eskumen publikoan gelditu behar da.** Eskumen publikoan diren obren gaineko kontrola ezin daiteke lehengoratu, obraren erreproduktzio teknikoaren gaineko eskubide besterenezinak argudiatuz, edo babes gailu tekniko mugatzaileak erabiliz obraren erreproduktzioak eskuratu ahal izateko.
4. **Eskumen publikoan den obra baten legezko erabiltzaileak aske izan behar du obra hori berrerabili, kopiatu edo aldatzeko.** Obra bat eskumen publikoan egoteak ez du esan nahi, halaberrez, publikoak eskuratzeko eran egon behar duenik. Eskumen publikoan den obra fisiko baten jabeek mugakizunak ezar ditzakete obra hori eskuratzeko. Alabaina, behin obra bat eskuratzeko bidea baimendua denean, ez litzateke lege mugakizun izan behar obra hori berrerabili, aldatu edo erreproduzitzeko.
5. **Eskumen publikoko obrak eskuratu edo berrerabiltzeko mugakizunak ezartzen dituzten kontratuak edo babes neurri teknikoak ez dira aplikatu behar.** Lan bat eskumen publikoan egoteak ziurtatzen du obra hori berrerabili, aldatu eta erreproduzitzeko eskubidea. Eskubide horren barne dira erabiltzaileen eskumenak, egile eskubideen gaineko salbuespen edo mugakizunetatik, eta gizalegezko erabileratik edo trataeratik sortuak; ziurtatu beharra dago eskumen horiek ere ez direla mugatzen kontratu edo teknologia bidez.

Horiez gain, hurrengo printzipioak daude nahitara partekatutako jakintzaren eta erabiltzaileen eskubideen muinean, arestian azaldu bezala:

1. **Egile eskubideei borondatez uko egitea eta babespeko obrak partekatzea zilegi dira egile eskubideen jabearentzat.** Egile eskubideen babesa duten egile askok ez dituzte eskubide horiek bete-betean erabili nahi, edo, besterik gabe, eskubideoi uko egin nahi diete. Hala jokatzeko zilegi da, betiere borondatez baldin bada, egile eskubideak erabiltzeko era jakin bat den heinean, eta ez litzateke inolaz ere oztopatu behar, ez legez, ez arauz, ez eskubide moralak argudiatuz.

2. **Egile eskubideen gaineko salbuespen edo mugakizunak, eta gizalegezko erabilera edo trataera etengabe elikatu behar dira, egile eskubideak, alde batetik, eta onura publikoa, bestetik, benetan orekaturik egon daitezten.** Mekanismo horiek egiazko arnasmune bat dira gaur egungo egile eskubideen sistemaren barruan. Teknologiaren eta gizartearen garapenaren garabide azkarra kontuan izanik, funtsezko erakunde sozialen zeregina eta behar bereziak dituzten pertsonen gizarte partaidetza ziurtatzeko gai izaten jarraitu behar lukete. Beraz, ulertu beharra dago egile eskubideen gaineko salbuespen edo mugakizunak, eta gizalegezko erabilera edo trataera, bilakaera batean direla, onura publikoaren beharretara etengabe egokitzeko.

Oinarri orokor huez gain, eskumen publikoari lotutako zenbait arazo berandu gabe aztertu behar dira. Jarraian datozen gomendioen xedea da eskumen publikoa zaintzea, zentzuzko era batez bere eginkizunak betetzen jarrai dezan. Gomendiook egile eskubideen esparru osora hedatu daitezkeen arren, bereziki loturik daude hezkuntzari, kultur ondareari eta ikerkuntza zientifikoari.

Gomendio orokorrak

1. **Egile eskubideen babes aldia laburtu egin behar litzateke.** Egile eskubideen babesa asko luzatzea, kontuan izanik aise eskura daitekeela, oso kaltegarria da gure jakintza eta kultura partekatua eskuragarri egon daitezten. Gainera, obra umezurtzak ugaltzera eramaten gaitu, ez egileen eskumenean, ez eskumen publikoan diren obra gero eta gehiago izatera, ez batean ez bestean erabilgarri direnak. Beraz, obra berrietan, egile eskubideen babes aldia laburtu egin behar litzateke, zentzuzko tarte batera.
2. **Egile eskubideen esparruan egiten diren aldaketa guztiak (barne direlarik babesgarri diren gaien definizio berriak, edo eskubide besterenezinak hedatzea) eskumen publikoaren gaineko eraginak kontuan hartuta egin behar lirateke.** Egile eskubideen esparruan egiten diren aldaketak ezin dira atzera-indarrez aplikatu, ordurako babespean ziren obren gainean. Egile eskubideak aldi batera mugatutako salbuespen bat dira, gure kultura eta jakintza partekatuaren eskumen publikoko izaeran. XX. mendean, eskubide horien esparrua nabarmenki hedatu zen, eskubidedun talde txiki baten interesak onura publikoaren aurretik lehenetsiz. Horren emaitza izan da gure kultura eta jakintza partekatuaren zatirik handiena giltzapean dagoela, egile eskubideen eta mugakizun teknikoaren ilunpean. Ziurtatu beharra daukagu egoera hori ez dela apur bat ere okerrera joango, baizik etorkizunean hobera egingo duela.
3. **Obra bat bere sorterrian egiturazko eskumen publikora iragana dela jotzen denean, obra hori mundu osoan zehar egiturazko eskumen publikokotzat hartu behar litzateke.** Obra bat herrialde jakin batean babesgarri ez bada, egile eskubideen salbuespen kasu baten barruan dagoelarik, bai jatortasun irizpideak betetzen ez dituelako, bai babes aldia amaitua duelako, ez luke biderik izan behar inorentzat (ezta egilearentzat ere) eskubideen babesa eskatzeko obra horren gainean beste herrialderen batean, egiturazko eskumen publikotik ateraraziz.

4. **Eskumen publikoan den materialaz jabetzeko iruzur eta faltsukeria saio guztiak legez zigortuak izan beharko lirateke.** Eskumen publikoaren osotasuna zaintzeko eta eskumen publikoaren erabiltzaileak irudikapen oker edo faltsuetatik babesteko, eskumen publikoan den materialaren gainean iruzur edo faltsukeria bidez eskubiderik eskuratzeko saio guztiak legez kanpokatzen jo behar lirateke.
5. **Jabetza intelektualaren beste edozein eskubide ezin liteke baliatu eskumen publikoko materialaren gaineko eskubide baztertzailerik eratzeko.** Eskumen publikoa funtsezkoa da egile eskubideen sistemak barne oreka gorde dezan. Barne oreka hori ez daiteke manipulatu, egile eskubideez kanpo diren arauetan oinarrituta, kontrol baztertzailerik eratu edota berreskuratzeko.
6. **Bide praktikoa eta eraginkorra izan behar litzateke «obra umezurtzak» eta salgai ez diren argitalpenak (besteak beste, agortutako obrak) eskuragarri egon daitezen, eta gizarteak erabil ditzan.** Egile eskubideen esparrua eta iraunaldia luzatuta eta atzerriko obren formalizazioa debekatuta, obra umezurtz mordo bat gelditu dira, ez egileen kontrolpean, ez eskumen publikoan. Gaurko legeen arabera, obra horien onura ez egileek ez gizarteak jasotzen dutela kontuan izanik, bideren bat ipini behar da eskuragarri izan daitezen, eta gizarte osoak erabiltzeko aukera izan dezan.
7. **Kultur ondareaz arduratzen diren erakundeek zeregin handi bat hartu behar dute aintzat, eskumen publikoko obrak katalogatu eta babesten.** Irabazteko asmorik gabeko elkarteek leporatu izan zaie, mendetan zehar, gure jakintza eta kultura partekatua zaintzeko zeregina. Eginkizun horren barruan, ziurtatu beharra daukate eskumen publikoan diren obrak eskuragarri direla, ongi katalogatuz, babestuz eta denon esku era askean ipiniz.
8. **Ez litzateke lege oztoporik izan behar obrak borondatez partekatu edo eskumen publikoan laga nahi dituenarentzat.** Bi ekintza horiek zilegi dira egile eskubideak dituenarentzat, eta, gainera, nahitaezkoak dira funtsezko kultur gaiak eta jakintza eskuragarri izan daitezen, baita egileen eskubideak aintzat hartuak izan daitezen ere.
9. **Babespeko obrak norberarentzat eta era ez-komertzialean erabiltzea baimendu beharko litzateke, oro har, egileentzat ordainsariak sortzeko bide berriak aztertuz.** Pertsona bakoitzaren garapena bermatzeko, funtsezkoa den bezala obrak norberarentzat eta xede komertzialik gabe erabiltzea, funtsezkoa da baita ere egilearen ikuspegia aintzat hartzea, eskubideen gaineko mugakizun edo salbuespen berriak erabakitzerakoan, edo lehendik ezarriak direnak berraztertzerakoan.